

ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMENA,
UDAL ONDAREAREN ORDENANTZA OSATZEKO

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak ARAU PROPOSIZIORAKO EKIMEN hau aurkezten du, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua oinarri, udal ondarearen ordenantza osatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, Donostiako Udalaren jabetzakoak diren zenbait eraikini aldi baterako izen komertzialak jartzeko joera zabaltzen ari da. Horren adibide dira Anoeta estadioari Reale izena jarri izana edota Donostia Kultura enpresa erakunde publikoak beste hainbeste egin izana Victoria Eugenia antzokiarekin (FCC Gunea) eta San Telmo museoarekin (Škoda).

lazko azaroan, EH Bilduk galdetu egin zion Ogasuneko zinegotziari zer arauditan oinarritzen den Ondare atala udal eraikinak izendatzeko, eta zer baldintza ezartzen dituen araudi horrek eraikinen izendapenaren inguruan; zinegotziak erantzun zuen ez dagoela horrelakorik. Donostia Kulturako Administrazio Kontseiluan ere galdetu genuen horren inguruan, eta emandako erantzunen arabera, ez da inon idatziz jasota utzi STMren eta VEn izenak behin-behinean aldatzeko erabakia, ezta erabaki hori hartzeko kontuan hartutako aldeko eta kontrako argudiorik ere; ahoz hartutako konpromiso komertzial bat izan omen da.

EH Bildu udal taldearen ustez, ez da zilegia ondare publikoaren parte diren eraikinei izena aldatzea izendapen komertzial bat jartzeko, behin-behinean bada ere, Udaleko Ondare atalak irizpiderik gabe. Ez da egokia herritarren memoria kolektiboan sakon errotuta dauden izenak alirizira erabiltzea, aldian-aldiko erabaki arbitrarioen mende. Gure ustez, hori gertatzea ahalbidetzen du Donostiako Udalak bere ondarea kudeatzeko ordenantzarik ez izateak.

Aipatu guztiagatik, hau da EH Bildu udal taldeak Udalbatzak hartzeko proposatzen duen:

ERABAKIA

- Donostiako Udalaren Ondarearen ordenantza osatzea ontzat ematea, arautze berri baten bidez araudian jasotzeko Donostiako Udalaren jabetzakoak diren eraikinen eta ondarearen inguruko kudeaketaren inguruko irizpideak eta beharreko alderdiak.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea